Antsoain
# BIM
Ansoáin

Antsoaingo
Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información Municipal
de Ansoáin

2020 Urria - Octubre • nº 20.zka






# Eskerrik asko Antsoain
# Gracias Ansoáin

Esku artean darabilzun Udalaren Informazio Aldizkaria berreskuratu dugu Antsoainen. Une egokia da, beraz, bizi dugun egoera zailari buruzko balantzea egiteko.

Lehenik eta behin, Udalak bere esker ona agertu nahi die gure herriko bizilagunei -helduei nahiz haurrei-, gehienek jokabide eredugarria erakutsi baitute itxialdiak iraun bitartean, bai eta gaur eguneraino irekitzen joan diren fase guztietan ere, aste gogorrak izan baitira benetan.

Eskerrik asko, jakina, gure osasun etxeko langile guztiei, gure herritarren lehen erreferentzia izan baitira bizi dugun atakari osasunaren bidetik aurre egiteko.

Jarraitzen du...

Ansoáin recupera el Boletín Informativo Municipal que tienes en tus manos y es un buen momento, por tanto, para hacer balance de la difícil situación que nos está tocando vivir.

En primer lugar, el Ayuntamiento quiere agradecer a la población de nuestro pueblo, mayores y pequeños, la actitud ejemplar mayoritaria demostrada durante las difíciles semanas de confinamiento y en todas las fases posteriores que se han ido abriendo hasta la actualidad.

Agradecimiento, por supuesto, hacia todo el personal de nuestro centro de salud, que ha sido y es la primera línea de referencia de nuestra población a la hora de afrontar sanitariamente lo que nos está tocando vivir.

Continua....

**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2020ko abendua – Próximo BIM: diciembre 2020)

Mila esker, nola ez, gure herriko elikagaien bankuan dihardutenei, buru-belarri aritu baitira lanean bankua funtzionamenduan mantentzeko, beharrean dagoen jendeari lagunduta, zailtasun guztien gainetik. Eskerrik asko, halaber, Zainketen Herri Sarean laguntzen aritu diren pertsona guztiei. Sarea Antsoaingo bizilagunek sortu zuten, gure adineko konfinatuei laguntza emateko.

Udalak, era berean, merkataritzari agertu nahi dio bere esker ona, bai eta merkataritzaren atzean dauden pertsona guztiei ere, gure oinarrizko beharrak ase izanagatik hain egun korapilatsu haietan. Esker ona, halaber, itxi behar izan zuten gainerako establezimenduei, lehen eskutik ikusi baitugu noraino behar ditugun, orduan, orain eta beti.

Bihoakie gure esker ona, halaber, Antsoaingo herri erakunde eta taldeei, guztiz ardura txalogarria erakutsi baitute herriarekiko uneoro, harro egoteko modukoa, eta mila esker ere udal langileei, onena ematen ari baitira krisia hasi zenetik gure zerbitzuak herritarrei eskaintzen jarraitzeko, zailtasun guztien gainetik.

Hilabeteotan guztiotan, Udala koordinazioan aritu da lanean Antsoaingo gizarte-eragile eta herri-eragileekin, Nafarroako Gobernuarekin, Estatuko Gobernuarekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Gizarte Zerbitzuekin, etab., guztioi dagokigun erronkari ahalik eta erarik batuenean heltze aldera.

Udaleko indar politiko guzti-guztiek bultzaturik, izugarrizko ahalegina egin zen, gure herriko jenderik zaharrenarekin etxez etxe kontaktatzeko eta 70 urtetik gorako pertsona bakoitzaren egoera jakiteko. Halaber, harremanean eta lankidetzan aritu gara Osasun Etxearekin, Antsoaingo Merkataritza eta Ostalaritza Elkartearekin, ikastetxeekin, apartamentu babestuekin, Gizarte Zerbitzuekin, Zainketen Herri Sarearekin, Elikagaien Bankuarekin, Ezkaba Erretiratuen Elkartearekin...

Eskura izan dituen bide guztiak erabiliz, Udala uneoro saiatu da informazioa ematen agintari eskudunek emaniko jarraibide ugariez eta, halaber, sekulako ahalegina egin du jarraibide horiek guztiak gure zerbitzuetara egokitzeko, bai zerbitzuak ixterakoan, bai berriz ere abian jartzerakoan, betiere segurtasun neurri zorrotzak hartuta. Udalak, gainera, diru-sarrerak jaitsi izanaren ondorioz, diru eragin nabarmena jaso du, bertan behera utzitako zerbitzuen kuotak itzuli edo ezabatu zirelako.

Baina, batez ere, zailtasunez beteriko garai honetan, antsoaindarrak inoiz baino gehiago erakusten ari dira gurea herri bikaina dela, herri bizia, denok harro egoteko modukoa. Horregatik guztiagatik, beraz, mila esker Antsoain.

Como no, gracias a las personas que sustentan el Banco de alimentos de nuestra localidad, que lo han mantenido activo, ayudando a la gente que lo necesita, a pesar de las dificultades. Gracias también a todas las personas que han colaborado en la Red Popular de Cuidados que vecinas y vecinos de Ansoáin pusieron en marcha para ayudar a nuestra población mayor confinada.

De la misma manera, la gratitud del consistorio hacia el comercio, y hacia todas las personas que lo sustentan, por la cobertura dada a nuestras necesidades básicas en esos días tan complicados. También al resto del sector obligado a cerrar, porque hemos podido comprobar cuanto lo necesitamos, entonces, ahora y siempre.

Gracias, igualmente, a los colectivos y entidades populares de Ansoáin, que han demostrado en todo momento una responsabilidad para con su pueblo digna de elogio y de orgullo, así como al personal de la plantilla municipal, que viene poniendo desde el inicio de esta crisis lo mejor de sí para poder ofrecer nuestros servicios a la ciudadanía a pesar de todas las dificultades.

Durante todo este tiempo vivido, el ayuntamiento ha trabajado y sigue trabajando en coordinación con los agentes sociales y populares antsoaindarras, el Gobierno de Navarra, Gobierno del Estado, Federación Navarra de Municipios y Concejos, Servicios Sociales, etc. para afrontar este reto colectivo desde la perspectiva más unitaria posible.

Con el empuje de todas las fuerzas políticas municipales sin excepción, se realizó un considerable esfuerzo para contactar domiciliariamente con la población de más edad de nuestro pueblo y conocer el estado particular de cada persona mayor de 70 años, se ha mantenido contacto y colaboración de medios con el Centro de Salud, con la Asociación del Comercio y Hostelería de Ansoáin, centros educativos, apartamentos tutelados, Servicios Sociales, Red Popular de Cuidados, Banco de Alimentos, Asociación de Jubilados y Jubiladas Ezkaba...

El consistorio ha tratado de informar en cada momento, a través de todos los medios a su alcance, de las innumerables directrices que se han venido dando desde las autoridades habilitadas para ello y se ha realizado un ingente esfuerzo para adaptarlas a nuestros servicios, tanto a la hora de cerrarlos como de su reapertura bajo estrictas medidas de seguridad. Se ha asumido además un importante impacto económico derivado de la merma de ingresos por la suspensión o devolución de cuotas de estos servicios suspendidos.

Pero sobre todo, en este tiempo de dificultad son las y los antsoaindarras quienes están demostrando más que nunca que este es un gran pueblo, un pueblo vivo del que todas y todos podemos sentir un enorme orgullo. Por todo ello, gracias Ansoáin.

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016

## EKONOMIA ARLOKO NEURRI BEREZIAK, BIZI DUGUN OSASUN KRISIARI AURRE EGITEKO

Egungo osasun krisiak diru eragin nabarmena izan du ekonomian eta oraindik ere badu; familien, enpresen eta autonomoen ekonomian, zehazki, bai eta Udalaren diru egoeran ere. Hilabeteotan, neurri hauek hartu dira:

### UDAL ZERGAK

-Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga: borondatez ordaintzeko epea luzatu zen, 2020ko apirilaren 30era arte, hain zuzen. Halaber, zergaren ordainketa atzeratzeko aukera eman zen, premia justifikatuak eraginda.

-Kontribuzioaren gaineko zerga: Lehen seihilekoa borondatez ordaintzeko epea atzeratu egin zen, maiatzaren 6tik uztailaren 3ra bitartera, hain zuzen. Ordainketa atzeratzeko aukera ere eman zen, premia justifikatuak eraginda.

### TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK

-Alarma-egoerak iraun bitartean, kuotak ez zitzaizkien igorri Udalaren kirol instalazioetako abonatuei, eta kirol jardueren abonuak ere ez ziren kobratu. Une hartan bertan, kuotak arautu ziren, zerbitzua eman ez zen denboraldiari zegokion zenbatekoa itzulita.

-Udalaren haur eskolaren kuotak ere bertan behera utzi ziren; zehazki, martxoaren 12ra arte emaniko zerbitzuei zegokien zatia soilik kobratu zen.

-Musika eskolako kuotak ere ez ziren kobratu, zerbitzua berriz ere ematen hasi arte. Une hartan bertan, kuotak arautu ziren, zerbitzua eman ez zen denboraldiari zegokion zenbatekoa itzulita.

### LAGUNTZAK MERKATARITZARI, OSTALARITZARI ETA AUTONOMOEI

-10. ordenantza fiskala aldatu da eta, horren ondorioz, ostalaritzak ez du urte osoan ordaindu beharko terrazak paratzeari dagokion tasa. Lagungarria izanen da sektoreari bultzada emateko, egoera zailean baitago.

## MEDIDAS EXTRAORDINARIAS TOMADAS EN EL ÁMBITO ECONÓMICO ANTE LA SITUACIÓN DE CRISIS SANITARIA QUE SUFRIMOS

La crisis sanitaria ante la que nos encontramos ha tenido y tiene un importante impacto económico que afecta a las economías familiares, a la de las empresas, a la de autónomos, autónomas y a la del propio ayuntamiento. A lo largo de estos meses se han tomado las siguientes medidas:

### IMPUESTOS MUNICIPALES

- Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica (IVTM): se amplió el plazo de periodo voluntario de pago hasta el 30 de abril de 2020, ofreciendo la posibilidad, en caso de necesidad justificada, de solicitar el aplazamiento del pago del citado Impuesto.
- Impuesto de la contribución: El periodo voluntario de pago del primer semestre se desplazó al periodo comprendido entre el 6 de mayo y el 3 de julio. Se ofrecía también la posibilidad de, en caso de necesidad justificada, solicitar el aplazamiento del pago.

### TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS

- Se suspendió el giro de las cuotas a las y los abonados de las instalaciones deportivas municipales y el cobro de los abonos de las actividades deportivas durante el periodo de duración del estado de alarma, hasta el restablecimiento del servicio. En ese momento se procedió a la regularización de las mismas, con devolución del importe correspondiente al periodo sin prestación de ese servicio.
- Se suspendió el giro de las cuotas de la escuela infantil municipal, girando únicamente la parte correspondiente a los servicios prestados hasta el 12 de marzo.
- Se suspendió el giro de las cuotas de la escuela de música hasta el restablecimiento de la prestación del servicio, momento en el que se procedió a la regularización de las mismas, con devolución del importe correspondiente al periodo sin prestación del citado servicio.

Escuela de Música
ASA
Plaza Nuevo Baztán, 1 (trasera)
T. 948 124 120
Se atiende por WhatsApp
E-mail: asa.musicaeidiomas@gmail.com
www.escuelademusicaasa.com

CURSO 2020/21
¡ULTIMAS PLAZAS!

Todas las medidas higiénico-sanitarias para la máxima seguridad:
- Uso obligatorio de mascarilla para todo el alumnado y profesorado
- Preparados para clases online
- Atención al público: POR LAS MAÑANAS de 11 a 13:30 h. y tardes de manera telefónica, telemática o con cita previa
- Protocolo de actuación en caso de COVID-19

Tecnología Activepure
Limpiezas de aire, prendas y superficies
Sin ozono



Síguenos en
Escuela de musica asa

Purificador de aire
BEYOND GUARDIAN AIR

-Aurrekontuetan aldaketa eginez, Udalak 100.000€-ko partida bat onetsi du, osasun krisiak gure sare ekonomikoan eragindako kalte ekonomikoak arintzen laguntzeko. Dirutza bi laguntza mota hauetara bideratuko da:

1) Zuzeneko dirulaguntza Antsoainen kokaturiko autonomo eta negozio txikientzako. Aurreikusitako zenbatekoa: 60.000€.
Laguntza horren hartzaileak autonomoak, enpresa txikiak eta hurbiltasuneko denda txikiak eta ostalaritza izanen dira, betiere martxoan xedatutako itxierak haien jardueran eragina izan bazuen edota haien fakturazioan murrizketa izan bada, beste baldintza batzuen artean. Bai ekimena bera, bai laguntza eskatzeko oinarriak, prestatzen ari dira.

2) Herriko merkataritza dinamizatu eta sustatzeko dirulaguntza. Aurreikusitako dirulaguntza: 40.000€. Herriko kontsumoa eta enpresa-jarduera piztea da helburu nagusia. Horretarako, “BONUAK KONPROMISOA ANTSOAIN” izeneko programa proposatu da, gaur egun prestatzen ari direna.

### ERAGIN EKONOMIKOA UDAL KONTUETAN

Bizi dugun egoeraren ondorioz hartutako neurri horiek guztiek eragin nabarmena izan dute udalaren diruetan. 2020ko kontua ixtean ikusiko dugu norainokoa izan den eragina egiazki. Kontuan hartu behar da diru-sarrerek behera egin dutela, eta krisiari aurre egiteko gastuek, berriz, gora; eta kontuan hartu, halaber, dirulaguntzak jaso direla eta gastu batzuk gauzatu ez direla, ezinezkoa izan delako. Hona hemen zenbait datu:



-Diru-sarreretan izaniko murrizketa, abuztuaren 31ra arte – Udalak uste baino 485.000 euro gutxiago jaso ditu, diru-sarrerek behera egin izanaren ondorioz, ez baitira tasa eta prezio publikoak kobratu.

-Gastu handiagoa – Pandemiak eragindako egoerari aurre egin beharrez, udalak data berean uste baino 45.380 euro gehiago gastatu ditu. Urtea bukatu bitartean, dirutza hori are gehiago handituko da, oraindik ez baitaude jasota eskolak garbitzeko kostu gehigarriak. Izan ere, garbiketa nabarmen sendotu da, ikastetxe publikoa eta haur eskola ikasturte hasieran sakon garbitzeko. Beste gastu batzuk ere ez dira oraindik jaso.

-Gauzatu ez diren aurrekontu-partidak – Bestalde, aurrekontuetako partida batzuk ez dira gauzatuko, dela osasun egoeraren eraginez ezinezkoa delako,

### AYUDAS AL COMERCIO, HOSTELERÍA Y SECTOR AUTÓNOMO

- Se ha modificado la ordenanza fiscal número 10 para eximir del pago de tasas de ocupación del suelo por terrazas de todo el año 2020 a la hostelería y así contribuir al impulso del sector en esta situación difícil.
- Se ha aprobado, vía modificación presupuestaria, una partida de 100.000€ para contribuir desde el ayuntamiento a paliar los perjuicios económicos ocasionados por la crisis sanitaria en nuestro tejido económico. Este importe se pretende repartir en dos tipos de ayudas:

1) Ayuda económica directa para autónomos, autónomas y pequeños negocios ubicados en Ansoáin. Importe previsto: 60.000€.
Esta ayuda estará dirigida a los autónomos, autónomas, micro-empresas o pequeño comercio de cercanía y hostelería, cuya actividad estuvo afectada por el cierre decretado en marzo o por una reducción en su facturación, entre otras condiciones. Esta iniciativa y las bases para su solicitud se encuentran en fase de elaboración.

2) Ayuda económica destinada a la dinamización y fomento del comercio local. Importe previsto: 40.000€. El objetivo principal es el de reactivar el consumo y la actividad empresarial del pueblo, beneficiando además a la ciudadanía con descuentos en sus compras. Para ello se plantea el programa denominado “BONOS COMPROMISO ANSOÁIN”, también en fase de elaboración.

### IMPACTO ECONÓMICO EN LAS CUENTAS MUNICIPALES

Todas estas medidas puestas en marcha como consecuencia de la situación que atravesamos suponen también para el ayuntamiento un importante impacto económico cuya verdadera dimensión se podrá visualizar a la hora del cierre de la cuenta de 2020, en la que tendrán reflejo tanto la merma de ingresos registrada como los sobrecostes derivados de hacer frente a esta crisis, junto a las ayudas recibidas y los gastos que no han podido ser ejecutados. Algunos datos:

- Merma de ingresos a 31 de agosto – a esa fecha, la caída de ingresos por el no cobro de tasas y precios públicos, junto a la devolución de cuotas, suponían un montante de unos 485.000 euros que el ayuntamiento ha dejado de ingresar por esos conceptos.
- Aumento de gasto – Derivado de la necesidad de hacer frente a esta situación de pandemia, a la misma fecha el ayuntamiento tenía un sobrecoste contabilizado en sus cuentas de 45.380 euros, que aumentará hasta final de año porque todavía no estaba reflejado el coste adicional que suponen los importantes refuerzos de limpieza establecidos para colegio público y escuela infantil al inicio del curso escolar, además de otros.

dela zuhurtasunak bultzaturik, egoerak ziurgabetasun ekonomiko handia sortu duelako. Besteak beste, hona hemen horrelako partidak: Ezkaba ikastetxeko jostalekurako inbertsioa, 2019ko aurrekontu partehartzaileen irabazlea izan zena (60.000 euro) eta datorren urtera atzeratu dena; Sakanpea aldeko haur parkearen berrikuntza (45.000 euro), atzeratu egin baita; edo jaietarako dirua (88.000 euro), bertan behera utzi baitira; dena den, partida horretako diru batzuk udako kultur programazio berezira bideratu dira.

-Udaletarako funts berezia – Egoera horren baitan, Nafarroako Parlamentuak 25 milioi euroko funts bat sortzea onetsi zuen, udalen artean banatzeko, egoerak eragindako kalte ekonomikoa arintze aldera eta zenbait eremu zehatzetan egin beharreko inbertsioak finantzatze aldera, udal esparrutik ekonomia sustatzeko. Bada, Antsoainek guztira 383.000 euro jaso ditu, hots, 183.000 euro, diru-sarreren murrizketak eta gastu handiagoak eragindako egoera arintzeko, eta 200.000 euro, berriz, inbertsioak 2021eko irailaren 30era arte egiteko.

- Partidas presupuestarias no ejecutadas – Por otro lado, hay partidas presupuestarias que no se van a ejecutar, bien por la imposibilidad de hacerlo debido a la situación sanitaria o por prudencia ante la incertidumbre económica que todo esto supone. Hablamos de partidas como la de inversión en el patio del Colegio Ezkaba ganadora de los presupuestos participativos de 2019 (60.000 euros), que se aplaza al año próximo, la renovación del parque infantil de Sakanpea (45.000 euros) que queda igualmente aplazada, o la destinada a fiestas (88.000 euros), que han sido suspendidas, aunque una parte de ese dinero se ha destinado a la programación cultural especial de verano.
- Fondo extraordinario para ayuntamientos – en el contexto de esta situación, el parlamento de Navarra aprobó la creación de un fondo de 25 millones de euros, a repartir entre los ayuntamientos, destinado a paliar el impacto económico de esta situación y a inversiones a realizar en campos concretos al objeto de dinamizar desde el ámbito municipal la economía. De ese fondo aprobado, Ansoáin ha recibido un total de 383.000 euros, 183.000 euros para paliar la merma de ingresos y el mayor gasto y 200.000 euros para inversiones a realizar hasta el 30 de septiembre de 2021.

## NORMALTASUN BERRIA, MUSIKA BERBERA




Antsoaingo Musika Eskolako 2020-21 ikasturtea joan den irailaren 7an hasi zen, erritmoa egungo osasun egoerara egokituta. Zentroko instalazioak berriz ere musikaz bete, eta eskolak neurri gomendatuetara egokitu dira, bai eta ikasturteak ekar ditzakeen agertokietara ere. Adibidez, osasun arrazoiak direla medio, eskolara etortzerik ez duten ikasleek saioak online jasotzeko aukera izanen dute. Hortaz, itzulera segurua egin da musikara eta gogo handiz ere bai.

## NUEVA NORMALIDAD, MISMA MÚSICA

El curso 2020-21 de la Escuela de Música de Ansoáin comenzó el pasado 7 de septiembre, retomando la actividad presencial en todas las asignaturas y adecuando su ritmo a la actual situación sanitaria. Las instalaciones del centro han vuelto a llenarse de música y las clases se han adaptado a las medidas recomendadas y a los posibles escenarios que traiga este año escolar, por ejemplo, el alumnado que no pueda acudir al centro por razones de salud tendrá la posibilidad de recibir clases online. La vuelta a la música se hace segura y con muchas ganas e ilusión por parte de todo el equipo que forma la Escuela.



## OBRAK ANTSOAINGO ZENBAIT KALETAN, PERTSONENTZAKO EREMU PUBLIKOA HOBETZEKO

Duela zenbait astetatik hona, hainbat kale berrantolatzeko lanak egin dira. Lapurbide, Arturo Campion, Harrobietako Zeharkalea eta Nafarroa kaleetan, hain zuzen.



Obrek, nagusiki, hainbat helburu izan dituzte, hala nola pertsonei leku handiagoa ematea, besteak beste haien osasuna hobeki bermatzeko, bide-segurtasuna handitzeko, ataka honetan saltokien eta ostalaritza-establezimenduen beharrei erantzuteko, bizilagunen etxeetarako sarbidea bermatu edo hobetzeko eta, era berean, eskola-ibilbideak hobetzeko.



Hona hemen abian jarri diren berritasunak:

Txandakako aparkalekuak Lapurbide, Arturo Campion eta Nafarroa kaleetan sortu dira.

- Txandakako aparkaleku horiek doakoak dira.
- Goizeko 8:00etatik 22:00etara erabil daitezke, astelehenetik igandera.
- Erabilera-ordu horietan, gehienez 30 minutuz aparkatu daiteke bi eremuetarako.
- Aparkaleku librea, 22:00etatik 08:00ak arte.
- Edonongo edozein ibilgailuk erabil ditzake.
- Honatx txandakako aparkaleku horien helburuak:
  - Bizilagunen beharrei erantzutea: senideei arreta egitea, bisita laburrak, mandatuak, etxean gauza handiak utzi edo jasotzea, etab. Azken finean, etxeetarako irisgarritasuna hobetzea.
  - Herriko dendetan erosketak edo mandatuak lasai eta txukun egiten laguntzea.
  - Bigarren ilarak eragindako kutsadura akustikoa nahiz bide-segurtasuneko arazoak eragoztea.
- Aldi berean, Harrobietako kalearen aparkalekuaren erabilera antolatu da. Orain, doan aparkatzeko lekuak eskaintzen dira, arestian aipaturiko kaleetatik hurbil, 3-4 minutura baitaude oinez.

Lan zehatzei dagokienez, aparkalekuak margotu eta markatu dira, bai eta hiri-altzariak jarri ere. Hemendik denbora batera, emaitzak aztertuko dira eta, horrekin bat, ikusiko da kale horien behin betiko urbanizazioari ekin edo ez. Horrenbestez, obrak, hein batean, behin-behinekoak izan dira. Gero, dagokionean, balorazioa egin eta, aukera bada, behin betiko lanak eginen dira.

## INTERVENCIÓN EN DIFERENTES CALLES DE ANSOÁIN PARA LA MEJORA DEL ESPACIO PÚBLICO PARA LAS PERSONAS

Desde hace varias semanas se han ido desarrollando obras de reordenamiento de las calles Lapurbide, Arturo Campión, Travesía Canteras y Navarra.

Los objetivos principales de esas actuaciones son dar más espacio a la personas para, entre otras cosas, poder garantizar mejor la salud, aumentar la seguridad vial, responder a las necesidades de los comercios y establecimientos hosteleros en estos complicados momentos, garantizar o mejorar el acceso del vecindario a sus domicilios y mejorar también recorridos escolares.

Las novedades que se han puesto en marcha son:

Creación de plazas de aparcamiento rotatorias en Lapurbide, Arturo Campión y Navarra

-Estas plazas de rotación son gratuitas.

-Tienen un horario de uso de 8.00 h. de la mañana a 22.00 h. de lunes a domingo.

-En estas horas de utilización, el tiempo máximo de estacionamiento son 30 minutos para ambas zonas.

- Aparcamiento libre entre las 22.00 h. y las 8.00 h.
- Estas plazas las puede utilizar cualquier vehículo, independientemente de su procedencia.
- Los objetivos de estas plazas rotatorias son los siguientes:
  - Atender las necesidades del vecindario: Atención de familiares, visitas cortas, recados, dejar o recoger bultos de casa... en definitiva, mejorar la accesibilidad a los domicilios.
  - Ayudar a la realización de compras o recados en el comercio local con calma y orden.
  - Evitar la contaminación acústica y los problemas de seguridad vial que genera la doble fila.
- Se ha ordenado a su vez el uso del parking de la calle Canteras, ofreciendo plazas de aparcamiento gratuitas a una distancia peatonal de las diferentes calles citadas de 3-4 minutos andando.

Estas actuaciones han sido realizadas mediante pintado, marcaje de zonas e introducción de mobiliario urbano. La idea es poder valorar su resultado dentro de un tiempo para en un futuro, si así se considera, abordar la urbanización definitiva de esas calles. Por lo tanto, esta actuación contiene una parte de provisionalidad que su valoración en el tiempo nos permitirá hacer definitiva.

## 2019KO KONTU ITXIERA



Duela gutxi, “2019ko aurrekontuaren likidazioari buruzko kontu-hartzailetzaren txostena” aurkeztu da Ogasun Batzordean. Guk hemen nabarmendu ditugun emaitza ekonomikoak daude jasota. Horrela, Antsoaingo Udalaren kontua hauxe zen, 2019ko abenduaren 31n:

- AURREZKI GARBI POSITIBOA (diru-sarrera arruntak ken gastu arruntak): 164.814,90 euro.
- GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZA GERAKIN POSITIBOA: 2.296.883,36 euro.
- Diruzaintza likidezia: 2.725.035,07 euro.
- ANTSOAINGO UDALAK EZ DU ZOR BIZIRIK.

### 2019a ZENBAKIETAN

- DIRU-SARRERAK: 8.507.589,60 euro.
- GASTUAK: 8.583.553,91 euro.
- INBERTSIOAK: 427.504,11 euro inbertitu dira, guztiak ere Udaleko bertako baliabideen bitartez finantzatuak.
- Aurrekontu-egonkortasunerako arauak 64.889,90 euroko emaitza negatiboa izan du. 2020ko maiatzean, udalbatzako osoko bilkurak Plan Ekonomikoa eta Finantzarioa onetsi zuen, nahitaezkoa baita, aurrekontuak orekatzeari begira.
- Gastu-araua bete da, 2019ko gastu konputagarria 2018koa baino txikiagoa izan zen neurrian; 39.228,85 euro gutxiago gastatu baitzen.

## CIERRE DE CUENTA DE 2019

En fechas pasadas se presentó en la Comisión de Hacienda el “Informe de Intervención sobre la liquidación del presupuesto del ejercicio 2019”, que presenta los resultados económicos que aquí se destacan. La cuenta del Ayuntamiento de Ansoáin reflejaba a 31 de diciembre de 2019:

- Un AHORRO NETO POSITIVO (ingresos corrientes menos gastos ordinarios) de 164.814,90 euros.
- Un REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES POSITIVO de 2.296.883,36 euros.
- Una liquidez de tesorería de 2.725.035,07 euros.
- El Ayuntamiento de Ansoáin NO TIENE DEUDA VIVA PENDIENTE.

### 2019 EN CIFRAS

- INGRESOS: 8.507.589,60 euros.
- GASTOS: 8.583.553,91 euros.
- INVERSIONES: Las realizadas supusieron un importe de 427.504,11 euros y fueron financiadas con los recursos propios del Ayuntamiento.
- La regla de estabilidad presupuestaria arroja un resultado negativo de 64.889,90 euros. En mayo de 2020 el Pleno de la Corporación aprobó el preceptivo Plan Económico Financiero que permite el restablecimiento del desequilibrio mencionado.
- Se cumple con la regla de gasto, en la medida que el gasto computable del ejercicio 2019 fue inferior al del ejercicio de 2018 en 39.228,85 euros.



## BERDINTASUN ZERBITZUA

### BERDINTASUN TEKNIKARI BERRIA HASI DA

Irailaren 1ean, Sara San Julián Caso hasi da lanean. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun teknikari berria da udalean.

Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzuak Berdintasun arloko udal politikak diseinatu, planifikatu, kudeatu eta ebaluatzen ditu gure herrian. Era berean, sentsibilizazio, informazio eta aholkularitza lanaz arduratzen da aukera-berdintasunaren arloan, dela barnera begira (udal langileak), dela kanpora begira (herritarrak, elkarteak eta taldeak).

**Edozein galdera baduzue, jo ezazue Sararengana: igualdad@ansoain.es eta 948 384 048.**

### ERASO SEXISTAK ETA ERANTZUNKIDETASUNA. SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

Antsoaingo Udalak bat egin du kanpainarekin. Ekimena udan sustatu dute Nafarroako hainbat herritako Berdintasun Zerbitzuek, bi helburu nagusi kontuan hartuta: batetik, eraso sexistei aurrea hartzea eta, bestetik, erantzunkidetasuna sustatzea.

Covid-19ak aisia eta sozializazio esparruak aldatu baditu ere, oraindik ere eraso sexistarik badago. Beraz, aurrerantzean ere, zero tolerantzian oinarritutako mezua zabaldu beharra daukagu, baita “normaltasun berrian” ere.

Aisia gune guztiak jende guztiarentzat gune seguruak eta gozagarriak izatea nahi dugu. Horren haritik, “normaltasun berri” berdinzale eta erantzunkidearen alde egin dugu, errespetuan eta tratu onean oinarritua. Harremanek, gainera, bi aldeek onartuak eta adostuak izan behar dute, eta erantzukizunak berdin banatu behar dira.

Kanpainaren baitan, musukoak banatu dira, eskua indarkeria sexistaren aurkako ikur gisa ageri delarik. Halaber, pegatinak banatu dira, harreman sozioafektiboek eta harreman erantzunkideek errespetua eta askatasuna oinarri izan behar dituztela gogorarazteko. Hortaz, musuko horiek herritarrak “denetariko” kutsaduretatik babestuko dituzte.

## SERVICIO IGUALDAD

### INCORPORACIÓN DE LA NUEVA TÉCNICA DE IGUALDAD

El 1 de septiembre se incorporó Sara San Julián Caso, como nueva técnica municipal de igualdad entre mujeres y hombres.

El Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Ansoáin es responsable del diseño, planificación, gestión y evaluación de las políticas públicas municipales de Igualdad de esta localidad. También sensibiliza, informa y asesora tanto a nivel interno, (el propio personal municipal), como externo, (ciudadanía, asociaciones y colectivos), en materia de igualdad de oportunidades.

**Para cualquier consulta podéis poneros en contacto con Sara en igualdad@ansoain.es y 948 384 048.**

### CAMPAÑA DE SENSIBILIZACIÓN AGRESIONES SEXISTAS Y CORRESPONSABILIDAD

El Ayuntamiento de Ansoáin se ha sumado a esta campaña, promovida en verano por varias localidades navarras desde sus Servicios de Igualdad, cuyos objetivos principales son prevenir las agresiones sexistas y promover la corresponsabilidad.

Aunque el Covid-19 ha modificado los espacios de ocio y socialización, las agresiones sexistas siguen existiendo y debemos seguir transmitiendo el mensaje de tolerancia cero, también en la “nueva normalidad”.

Deseamos que todos los espacios de ocio sean espacios seguros y de disfrute para todas las personas, apostando por una “nueva normalidad” igualitaria y corresponsable, basada en el respeto y el buen trato, en la que las relaciones deben ser consentidas y aceptadas por ambas partes y con reparto de responsabilidades por igual .

Esta campaña incluye el reparto de mascarillas con la mano como símbolo contra la violencia sexista, así como pegatinas relacionadas con el respeto y la libertad en las relaciones socioafectivas y relaciones corresponsables. Hemos hecho estas mascarillas que protegerán a la ciudadanía de “todo tipo” de contagios.



## ANTSOAINGO UDALAK TOKIKO II. PROTOKOLOAREN SINADURA EKITALDIA EGIN DU, ANTSOAINEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUNA KOORDINATZEKO



Joan den ekainaren 24an, Tokiko II. Protokoloa sinatzeko ekitaldia egin zen, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduna koordinatzeko.
Protokoloa udal osoko bilkurak onetsi zuen aho batez, joan den azaroaren 27an, hau da, talde politiko guztiek aldeko botoa eman zuten (EH-Bildu, PSN-PSOE, Unidas Izquierda Ezkerra Podemos, Navarra Suma eta Geroa Bai). Protokoloa ezarriko bada, Antsoaingo Udalaren konpromisoa beharko da, eta horrez gain, emakumeen aurkako indarkeria gaietan Antsoainen eskumena duten baliabide guztien egiazko inplikazioa eta koordinazioa ere bai.

Protokoloa mugarria da udalerriak emanen duen arretan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta, era berean, indarkeria horretatik biziraun duten emakumezkoei eta haien seme-alabei laguntza koordinatua eta bateratua emateko. Bestalde, udalerrian emakumeen aurkako indarkeria gaietan diharduten baliabideek egindako lan etengabe eta mailakatuari esker egin da protokoloa.

